

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/1/22 | 316



🌀	"Tolosa egin dugun tolosarrok" liburua kalean
🌀	Txolarre irratiak logo eta lelo berria
🌀	Eta emakumeari sugeak esan zion
🌀	Neguko kultur programan euskal ekoizpen ugari
🌀	Ugaitz Renobalesi elkarrizketa
🌀	Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

AHTren aurrean,  
lurjabeak euren  
eskubideen alde

2-16  
urte

bi urteko gelak · udal ludoteka



# uzturpe ikastola

herrian hazi eta hezi

matrikulazio epea otsailaren 1etik 12ra

dei iezaguzu eta bisita antolatuko dugu



Egialde 2, 20400 Ibarra | Tel.: 943 671299 | Faxe: 943675632 | [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net) | [www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxe\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

R.ZABALA  
SAGARDOTEGIA

943 69 07 74  
[info@rzabala.com](mailto:info@rzabala.com)  
Garagartza Baserria  
20150 Aduna



EN LA PRIMERA  
**MULTIOPTICAS**  
1.ª ZERBITZU OPTIKOETAN

**ZEUK  
AUKERATU**

[www.multiopticzagipuzkoa.com](http://www.multiopticzagipuzkoa.com)

San Frantzisko 23  
Tel.: 943 69 84 70  
**TOLOSA**

50€  
BETAURREKO  
ZAHARREN TRUKE

2<sup>garren</sup>  
BETAURREKOAK  
DOAN

% 60  
rainoko  
BEHERAPENA  
LEHEN MARKETAN

Batasunak 2010eko martxoaren 7ra arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin giletu.



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo  
 Banatzaileak: Olatz,  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOIKIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
 diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia:

### “Eskualdeko lurjabeak, AHTren desjabetzeak atzeratzen”

2009ko udazken eta neguan egin ziren Legorreta eta Tolosa artean AHTren lanekin hasi ahal izateko lurren desjabetze deialdiak. Alegian udaletxea itxi egin zuten, eta beraz, bertan behera geratu zen akten sinaketa. Tolosako lurjabeak berriz bi aldiz deitu zituzten udaletxera; lehenengoan denek egin zioten uko aktak sinatzeari; bigarren saiakeran lurjabe batzuekin akordio batera iritsi eta zenbait lurren desjabetze aktak sinatu ziren. Zenbait lurjabe ordea euren eskubideak defendatzen jarraitzen dute, eta informazio zehatzik eduki arte ez dutela ezer sinatuko diote.

8-11. orrialdeak

«Eskualdean dagoen hutsune handi bati erantzuna emango dion zentro bat diseinatu dugu: Eskualdeko lehiakortasun eta berrikuntzarako zentroa da. Une honetan, zentro horrek non joan beharko lukeen aztertzen ari gara.»

Elkarrizketa: Jose Luis Urdangarin

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Unai Igartua eta Txomin Garmendia	4-5
	Normalizazioa: Euskaraz Bai dinamika herrietan	6-7
	Eskualdeko albisteak: “Tolosa egin dugun tolosarrok” liburuz	12-13
	Eskualdeko albisteak: Txolarre irratia logo eta lelo berria	14-15
	Irakurlearen begietatik: Eta emakumeari sugeak esan zion	19
	Kultura: Neguko kultur programan euskal ekoizpen ugari	20-21
	Kirol saila: Ugaitz Renobalesi elkarrizketa	22-23



Unai Igartua

Eneko Arizaren lagunak taldeko kidea

Nik ez dakit zilegi den, aukera\_aprobetxatzea, Galtzaundiko lerro hauek, orain niretzat hartzea. Abila ez naizen arren, merezi du saiatzea; "osaba izan behar dut", munduan plazaratzea. Barkaidazu oldartzea bainan barruko lertzea, kritika artikulua alde baten lagatzea; bihotzak eskatutzen dit ezin dut egin atzera datorren haur txiki horri, bertso hauek eskeintzea.

Amatxo joan zitzaigun, gu gazte izaterako haren hutsune handia, earki zenun beteko, orain berriz ere ama zaudelarik izateko. Ez dakizun gauzarikan ez dadukat esateko, halere bai eskatzeko: zarenean jarraitzeko alaitasun, bizipoza baituzu oparitzeko tristuraren sendagaia beti duzu emateko arreba laztantxo hori beti zaitugu maiteko.

Txo gure txakur zintzoak gaitu guztiz txoratuta. Orain aurkituko dugu inbidiaz muturtuta. Hautxoaren aita ere etzaitugu ahaztu ta izan zaitez zorionsu zure maiteak hartuta. Etxeko\_hormak gozatuta eta bihotza\_alaituta beti ikusi nahi zaitut arrebatz itsututa. Aiur inoiz ez da\_egongo mundu honetan galduta. Pertsona latza izango da aita\_amak ezagututa.

Senideekin jarraituz, ezin (ah)aztu zaharrenak: Attona Migel, Rikardo, ta beraien bizipenak, izarretatik begira dagon gure amarenak; sentipen berezia du Teresa amonarenak. Hau ei jun zaizkie penak baita ere negar denak hautxoaren heziketan garrantzitsuak direnak prozesu eder hontatik le(he)nago pasa zirenak baina ziur ordun baino hunkituago daudenak.

Odolezko bi osaba ai ze zorionsu ge(r)an. Izeba osabak mila famili guztian pean. Konturatzen zera Aiur txiki ze suerteko ze(r)an? Maitasuna izangozu ondoan garen artean beldurra daukazunean eser nere magalean nik neuk zainduko baitzaitut arriskua ikustean. Sua barrutik doakit berotuz bete betean ederki pasako degu kokkortutzen zeranean.

Zorionak aitari ta baita ama ederrari aitona eta amona, izeba ta osabari. guztiok izango gera ur berriaren zaindari ta heltzean izan dadin gu guztion ameslari. Hautxoaren negarrari Aurre eginez kantari, lasai egon zaitezketenaiz sartu bertsolari. Amaitzeko gauzatxo bat hautxo jaio berriari: Zorionak goza zazu, ongi etorri bizitzari!!!

## Aiur

Doinua: Habanera

## Urtebetetze bat

Joan zan San Martin egunez, bazkalondoko kafea artzera ikaztegietako herriko -etxeko tabernara joan nintzan; konbidatua nengoen bazkaltzera ere, baiña kafea artuz bete nun nere eginkizuna. Arrazoia, Juanita Garmendiak 88 urte betetzen zitula eta pamili giroan ospatu zuten aundikiro. Emakume agurgarri hau, nere bigarren ama izan zala esan bear; Orendaingo Biriarte basarriko alaba da, eta amaika urte zitula gure Berrobiko basarriara joan omen zan neskame eta bertan bost urte iraun. Nere kontuak oker ez badira, 1932ko urtetik 1937kora arte nik, iru urtetik laura izango nitun, gure basarria utzi zunean, eta juxtu-juxtu oroitzen naiz.

Atzoko kontuak balira bezala esaten ditu gure basarriko eta neskametzako gora-berak: astoarekin egunerok nola joaten zan Tolosara esneakin, gaiñontzeko enkarguak, karobi erretzeak, eta zer ez? Gerra asi zanean, Santio egun batean naparrak

nola pasa ziran gure basarriari gora eta zer estuasunak izan zituzten ondo oroitzen da. Nolako soldata edo zer irabazten zuen galdetuta, etzakila ezer esan zidan; bere ama zana eta gurea biak biltzen omen ziran larunbatero Tolosan eta aiena izaten omen zan trataoa.

Astea lana galanki egiñez igarota, jai arratsalderako poza noski; Tolosara jeixten omen ziran dantzara eta Argindegiko Maria izaten omen zun laguna. Baiña, "Abemari-tako" etxera etorri bear eta ortan komeriak; Berrobitik Tolosara bost kilometro daude eta joan-etorri guztia oiñez egin bear zuten, or-tatik atera kontuak. Gaiñera, gure basarria naiko mendian dago eta garai artan gurdi-bide bat zula baso artean. Iñoiz, mutil gaiztoak ere ertetzen omen ziran bidera baso tartean gordeta egonda.

Ogei urte zitula ezkondu omen zan Ikaztegietara eta urte askoan Zubiaurre deritzaion tabernan eduki zuten, amar-seme alaba azi ere bai;

gaur bederatzi bizi dira, danak ezkondu. Gaur Juanitak badauzka hamazazpi bir-lloba eta bada zerbait! Urte batzuk badiera alargundu zala; ez det esango dantzarako moduan dagonik, baiña emakume gordiña dagola bai. Urte guztiko pozik aundiena, "Arantzazuko Amaren Bederatziurrena" Arantzazun egitea omen du eta aurtan ere, an igaro omen zitun egun oiek. Luzaro lagundu deiola elorri gaiñeko Amak.

Zer geiago esan? Gaurko gazterientzat sinisgaitz diran kontuak noski, baiña egiak. Munduko bizimodua beti joango da aldatzen, baiña joan dan larogei urtekoa ainbatekorik ez da izango beste larogei urtean. Ori da behintzat nere iritzia.

*Amaika urterekin neskame ta ogei zitula ezkondu,  
amar seme-alaba azitzen  
ez da geldirik egondu.  
Juanitan bizitza liburu baten  
ez ote leike sakondu?  
Galtzaundi bidez bein da berri-  
nik nai zaitut zoriondu.* ©



Txomin Garmendia  
Bertsolaria

# Euskaraz **B**ai dinamika herrietan

Pasa den larunbatean, hilaren 16an aurkeztu zuen KONTSEILUAK 2010erako duen egitasmoa. Jatorri, iritzi eta lan eremu desberdinetan diharduten 40tik gora erakunde autonomoren bilgunea da Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Erakunde horiek euskarak garapen osoa izatea dute helburu.



KONTSEILUAren zeregin nagusia euskararen aldeko jendarte-konpromisoa sustatzea da. Gaur egun, EUSKARAZ BAI dinamika abian du Kontseiluak herrietan. Dinamika honek jarraipena eman dio 2000. urteko urrian Kontseiluak abiatu zuen herrietako Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso prozesuari. Dinamika honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, herri mailan, gizarte eragileek eta entitateek, instituzioek eta norbanakoek euskararen erabilera normalizatzeko konpromisoak hartu eta betetzea eta bestetik, herrietako euskalgintza trinko-

tu, aktibatu eta dinamizatzea.

Helburu hauek lortu asmoz, urtero ekintza planak diseinatzeko Kontseiluak. Pasa den larunbatean egindako mintegian aurkeztu zuten 2010erako diseinatu duten ekintza plana. Hiru dira urte honetarako presatatu diren egitasmo nagusiak.

1. Udalerrien hizkuntza-politikaren bigarren neurketa.

2006an egindako neurketaren alderaketa egingo da 2010ean. Bigarren neurketa honen bidez, urteotan udalek egindako ibilbideak euskararen garapenean ondorio positiborik izan duen aztertu nahi da. Era berean, duela lau urte neurtu ez ziren herrietan

neurketa egiteko asmoa dago. Herrietako euskalgintzako eragileek laguntzaz egin nahi da ebaluazioa.

2. Gizarte –eragileek eta norbanakoek konpromisoak hartu eta betetzea.

Kontseiluak urtero proposatzen dituen konpromisoen ezaipena bultzatzeko Euskal Herri mailako bizpahiru lanketa, herri guztiekin une berean eta erabakigarriak diren zenbait alorrekin garatzeko. Gizarte eragileek gain, norbanakoei ere parte hartzeko deia egingo zaie, horien eraginez ere bizkortzeko entitateek euskararekiko jokabide aktiboak izatea. Ekintzak tokian tokiko ezau-



## BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN



garrietara moldagarriak izando dira. Hauek dira 2010erako proposatzen diren ekintzak:

- Establezimenduetako langileen euskalduntzea eragitea

Ekintzaren helburua da jendaurreko zerbitzua eskaintzen duten herrietako enpresa, saltoki eta era guztietako entitateetan zerbitzua euskaraz eskainiko dela ziurtatzea. Ekintza modu desberdinetan garatuko da herri euskaldunetan eta gainerakoetan. Herri euskaldunetan dendariak eta bezeroek euskara erabiltzen duten neurtuko da. Gainerakoetan aldiz, galdeketa egingo da,

### Bai Euskarari zozketaren ordezko zenbaki saridunak:

14253

asteburu pasa Orduñako bainu etxean

00271

afaria bi lagunentzat Zabala sagardotegian

12693

afaria bi lagunentzat Iretza sagardotegian

jendaurrean lan egiten duten langiletatik euskarazko zerbitzua zenbatek eskaintzen duten jakiteko. Ondoren langile erdaldunak euskaltegian izena ematera bultzatzeko kanpaina garatu daiteke.

- Merkatalgune handien hizkuntza-paisaiaren euskalduntzea eragitea

Helburu nagusia euskaldunon informazio-eskubidea bermatzea da, baino badu helburu sinbolikoa ere, euskara eta euskaldunok bagarela alegia. Euskara ikusgarri eginez, euskaldunek euskarari buruz dugun pertzepzioa hobetu daiteke, izan ere, hizkuntza-paisaia hizkuntzen bizitasunaren isla da. ©

T X O K O L A T E G I A



K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

## shanti kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa



*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

Alkiza

Irura

Anoeta

Hernialde

Tolosa

Ibarra

Bela

Leabu

8 Albiztur

Alegia

Altzo

Ikaztegieta



Informazio ezarengatik, hainbat lurjabek uko egin diote desjabetze aktak sinatzeari.

# Eskualdeko lurjabeak, AHTren desjabetzeak atzeratzen

9

2009ko udazken eta neguan egin ziren Legorreta eta Tolosa artean AHTren lanekin hasi ahal izateko lurren desjabetze deialdiak. Alegian udaletxea itxi egin zuten, eta beraz, bertan behera geratu zen akten sinaketa. Tolosako lurjabeak berriz bi aldiz deitu zituzten udaletxera; lehenengoan denek egin zioten uko aktak sinatzeari; bigarren saiakeran lurjabe batzuekin akordio batera iritsi eta zenbait lurren desjabetze aktak sinatu ziren. Zenbait lurjabek ordea euren eskubiak defendatzen jarraitzen dute, eta informazio zehatzik eduki arte ez dutela ezer sinatuko diote.



Abenduaren 16an jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak AHTren Legorreta-Tolosa zatiaren lehenengo harria. Irudi horiek ikusi ondoren, "lanak hastera doaz" ondorioztatu genuen denok. Ez da harritzekoa; azken finean, hori da errealitatea. Baina Tolosaldeko AHT Gelditu Elkarlaneko kideek errealitatearen beste aldeaz ohartarazi digute: "Legorreta eta Tolosa arteko lur guztiak ez dituzte desjabetu. Orduan, nola hasiko dira lanak egiten?". Gipuzkoan AHTren lanak atzeratuta daudela adierazi dute elkarlanean. "Ordiziako tunelarekin hasi dira, Itsasondan zuhaitz batzuk moztu zituzten, baina beste ezer ez da egin". Lakuako gobernu berriak prozesua azkartu duela onartzen dute, baina lehen harria jartzea bezalako ekitaldiak, "etsipena zabaldu eta herritarrak desmobilizatzeko helburuz" egiten dituztela salatu dute.

#### Eskualdeko trazatuaren egoera

AHTren lanak egiten hasi aurretik lau fase gainditu behar dira: Lehenik azterketa informatiboa aurkezten da; gero oinarrizko proiektua dator; hirugarren pausoa da, proiektu konstruktiboa egitea; azkenik, proiektu zehatza aurkezten da. "Oinarrizko proiektuan informazioa ematen da, baina oso orokorra izaten da eta gutxi gorabeherakoa. Proiektu konstruktiboan gehiago zehazten da informazioa, baina aldatu izaten ditu. Azken proiektu horretan bai, tren igaroko den lur eremuak markatu, sail horien lur jabeak zehaztu eta prozesu guztia azaltzen da".

Legorreta-Tolosa zatiaren (Ikaztegieta, Alegia, Aldaba eta

 Aktaren sinaketa atzeratzen badut galtzen aterako naizela mehatxatu didate

Felipe Sarasola  
lurjabea 

Aldaba Txikiko eremu bat) azken proiektua egina dago, eta orain lurra desjabetzeko prozesuan sartuta daude. Tolosa-Hernialde zatiari (Aldaba Txikiko eremu bat, Olarrain, San Esteban, Montezku...) dagokionez aldiz, proiektu konstruktiboaren fasean daude. Hernialde eta Zizurkil arteko tratatuak (Anoeta, Alkiza, Zizurkil) berriz oinarrizko proiektua besterik ez du oraindik.

#### Desjabetze aldia uste baino luzeago

Une honetan Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Aldaba eta Aldaba Txikiko lurra desjabetzeko prozesuan daude. Lur gehienak baseritarrenak dira. Tartean, bada herri-lurrik ere, Alegian esaterako. "Alegiako udalak ez zuen proiektu konstruktiborik jaso, oinarrizko proiektua iritsi zitaion, eta hurrena proiektu zehatza jaso zuen". Alegiako lurren desjabetze aktak sinatu behar ziren egunean udaletxea itxi egin zuten eta bertan behera geratu zen guztia, gaur arte. Aldaba eta Aldaba Txikiko lurjabeak ere Tolosako udaletxera deitu zituzten azaro partean. "Orduan, lurjabe guztiek uko egin zioten desjabetze aktak sinatzeari". Bigarren deialdi bat egin zen abenduan, eta orduan lurjabe batzuekin akordioak ixtea lortu zuten. "Lurjabe batzuekin aurretiazko akordioak lortzen dituzte. Negoziatu egiten dute akordio batera iristea lortu arte"



Isastegi Bekoa baserriaren azpitik igaroko da AHT.

Elkarlanak salatu duenez, lurjabe guztiei ez dizkiete baldintza berak eskaintzen. "Komeni zaiena-aren arabera" jokatzeko dute.

Lurjabe batzuk sinatu dituzte desjabetze aktak, baina oraindik ere badira euren eskubideak defendatuz sinatzeari uko egingoten dioten lurjabeak. Horietako bat da Felipe Sarasola, Aldaba Txikiko Isastegi bekoa baserriko jabea. Baserriaren azpitik pasako zaio tren, eta horretaz gain, hiru lur sail desjabetu behar dizkiote: "Aldaba Txikin zabortege bat doa, eta nire lurretan egin nahi dute. Bestalde, nire etxeko bidegurutzetik zertxobait gorago tunel faltsu baten ahoa egingo dute; azkenik, zaborrak ateratzeko bideak egiteko ere beste lur sail bat kenduko didate". Feliperen egoera berezi xamarra da. Izan ere, zabortegea, zaborra garraiatzeko bidea eta tunelaren ahoa egiteko behar dituzten lurrag Legorreta-Tolosa zatiaren barruan daude, eta beraz, horien desjabetze prozesuekin hasi dira. Baina baserria, Tolosa-Hernalde zatian geratzen

zaio, eta honenbestez ez du horri buruzko informaziorik, oraindik proiektu konstruktiboa besterik ez baitago.

"Gauzak argi jakin arte ez dut sinatuko"

Argi eta garbi du hori Felipe Sarasolak. Kaltetutako hiru lurren gaineko informazio badu, baina trenak etxean eragingo dizkion kalteen berri ez dauka, eta horrek sortzen dizkio kezka handienak. "Nik mugitu behar izan dut honi buruzko informazioa lortzeko. Hasieran etxearen oinarritik 30 metroko sakoneran pasako zela esan zidaten. Gero, 40 metrora igaroko zela aipatu zuten. Lasai egoteko esan zidaten, ondo ikertuko zutela dena, eta berme guztiak eskaintzen zizkigutela". Baina gaur, Isastegi bekoan ez dute informaziorik. "Ez dakigu lanak egin behar dituztenean hemen bizi beharoko dugun, edo alde egin behar badugu zein baldintza eskainiko dizkiguten. Lanek etxearen egitura kaltetuko duten beldurra

ere badut. Kasu horretan zein egingo litzateke guzti horren kargu? Ur-iturriak ere kaltetuta geratuko dira, eta horiek lehen bezala jartzeko garantiarik ere ez dut". Baldintza guztiak ezagutu arte, lur sail txikiaren desjabetze aktarik ez duela sinatuko ziurtatu du. Trena etxearen azpitik igarotzeagatik kaltetu gisa hartuko duten ere ez daki.

Informazio eza arrazoituta, uko egin dio aktak altxatzeari. Berarekin negoziatzen saiatu direla esan du: "Aktaren sinaketa atzeratzen badut galtzen aterako naizela mehatxatu didate, orain ondo ordaintzen ari direla eta gero ez dela horrelakorik izango esanez".

Sarasolak ez du aktak sinatzeko beste deialdirik jaso. Baina hurrengo aldia ere jarrera berarekin joango dela azaldu du. AHT Gelditu elkarlaneko kideek ere egin dute deialdia. Kasu honetan, AHTri ez esateko izango da. Otsailaren 6an eskualde mailako manifestazioa egingo dute Triangulotik abiatuta. ☺

# Xirimiri

Txokolategia  
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

## ibarra

Argi-Lanak

Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5  
20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878  
Faxa: 943 674 181  
Mobiela: 639 72 42 60

## OSM

Informatika

Ordenadoreen salmenta  
eta konponketa

Tolosa OSM Informatika S.L.  
Rondilla 48 behe - 20400 Tolosa  
Telf. 943 650 206  
tienda@osminformatika.com

## J. San Sebastian

MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Cd formatuan ateratako liburua Noticias De Gipuzkoaren bidez banatuko da

# Tolosa egin duten tolosarren biogr

Herri baten historia herritarrek egiten dute: industria-gizonek, idazleek, musikariek, gozo-saltzaileek, arotzek, etxeko andreak. Denak ez, baina 1.800 pertsonaia bildu ditu Mikel Telleriak "Tolosa egin dugun Tolosarrok" liburuan. Herriari izaera eman dioten pertsonaien biografiekin batera, Tolosaren izaera markatu duten instituzio politiko zein erlijiosoak, kultura eta aisia taldeak, usadioak eta Tolosako auzoen ezaugarri eta garapena azaldu ditu.

Leire Zubeldia

Mikel Telleria ez da historian eta idazketan hasi berria. Beste batzuen artean "La venganza de los Jaso" eta "Tolosako idazleak" bezalako liburuak idatzi ditu. Telleriaren ibilbidea eta lana ezaugarritzen dutelako bildu zen horrenbeste jende Tolosako Casino eraikineko aretoan. "Tolosa egin dugun tolosarrok" liburua aurkezteko hitzaldi ederra eskaini zuen. Ondoren, cd formatuan ateratako liburu bana oparitu zien han bidultako guztiei.

"Liburu honetan, Tolosan historian zehar jazotako gertaerak kontatu nahi izan ditut. Batzuk handiak eta historikoak izan dira, beste batzuk txikiak eta egunerokoak; baina denek eragina izan dute Tolosaren errealitatean". Hitz hauekin hasi zuen aurkezpen hitzaldia Mikel Telleriak. Liburuaren izenburuak, "Tolosa egin dugun tolosarrok" dioen bezala, historiako gertaerak ez ezik, herritarrek berriak eraikitzen dute herriaren izaera. Horregatik bildu ditu Tolosarentzat garrantzitsuak izan diren pertsonaien biografiak. "64.972 bataio agiri kontatu ditut, 1541. urtetik, 2000. urtera artekoak. Tolosa orain den bezala izan dadin ekarpenen bat egin dute guzti hauek, Tolosan jaio, bizi edo lan egin dutelako". Denak ezin kabitu eta bere ustez esanguratsuenak diren 1.800 pertsonaien biografiak osatu ditu. Aipamen berezia egin zien emakumeei, "Tolosako biztanle anonimoak izan dira, baina aldi berean, gure gizartearen euskarririk sendoenak ditugu".

## Pertsonaia bat, hondar ale bat

Ona edo txarra izan, Tolosari ekarpenen bat egin dioten pertsonaia dira Telleriak liburuan bildu dituenak. Denetik dago: Batzuk politikoak izan ziren, besteak erlijiosoak, besteak kultur gizonak, markesak, Tolosaren hasierako urteetakoak eta gaur egungoak.

Joanes de Iurramendi da egileak aipatu nahi izan duen pertsonaia bat. Navas de Tolosa gudan borrokan aritu zen. Garai beretsukoa da Gonzalez de Andia ere. La Union de las Villas de Guipuzcoa sortu zuenetako bat izan zen. Elkarketa honi esker, noblezia Tolosara etortzen hasi zen. Mende batzuk beranduago, industrializazio garaira gerturatu, Francisco Limusin hartu zuen ahotan. Gaur egun Tolosan dauden Limusin guztien aintzindaria da. Egilearen hitzetan, pertsona garrantzitsua izan da Tolosarentzat hainbat industria jarri baitzituen martxan herrian. Era honetan, Antton Agirre, Cecilia Guillarte, Antton de Pedro, Jose Mari Gorrotxategi, Martxelo Otamendi, Anjel Rekalde edo eta Eburne Pasabanen biografiak aurki ditzakegu besteak beste.

Egileak bi zatitan banatu du liburua. Lehenengo zatian Tolosan historian zehar eman diren gertaerak eta aipatutako pertsonaien biografiak daude. "Gertaeren aipamen dokumentatua egiten da. Horretarako, ezinbestekoa izan zait Pedro Elosegi tolosarrak ondutako "Calendario de sucesos tolosanos" liburua aldean edukitzea. 70. hamarkadan utzi zigun lan hau ikerketa zo-



# grafik

rrutz eta zehatza egin ondoren. Lan honi esker jakin dezakegure herriaren eguneroko historia”.

Bigarren zatian auzoak, bertako ohiturak, instituzio politiko, erlijioso, musikalkazein ludikoak, eta Tolosako hirigintza garapena azaltzen du. “Bigarren zati hau egin badut, auzoetako usadio eta bizi giroak norbanakoengan eragin handia dutela uste dudalako izan da”, argitu zuen.

## Sustraitutako ohiturak

Liburuko zati garrantzitsu bat eskaini die Telleriak Tolosan betidanik sustraiturik egon diren ohiturei. Era guztietako usadioak deskribtu ditu: Batzuk data zehatz batekin lotuta daudenak, beste batzuk, tematikoak, gai jakin baten inguruan ospatzen direnak hain zuzen ere. Ohituraok alor ezberdinetakoak dira gai-

nera. Esaterako, alkatearen aukeraketa egiteko historian zehar egon diren era ezberdinei buruz hitz egin zuen egileak:

Usadioetaz hitz egiten hasita, ezin lñauteiak aipatu gabe utzi. “Zer litzateke Tolosa lñauteririk gabe”, esan zuen Telleriak, “horregatik, lñauteriei buruzko jakingarri guztiak ere bildu ditut”. Eta zer izango lirateke lñauteiak txarangarik gabe? Bada, Txarangei eta hauen iturburuak diren Tolosako elkarteei leku bat egin die bilduma honetan. Horrenbeste zaletasun piztu dituen zenzeketei eta arraunari buruzko aipamenak ere ez dira falta.

Kanturako eta musikarako joera ere betidanik izan dute tolosarrek. Hori ondo islatzen da Telleriaren lanean. “Aurkitutako Tolosaren lehen aipamenean garaioa da Tolosako Txistulari Banda. Garai beretsuak kokatzen

da Santa Maria Kapera ere. Aldiz, zertxobait berriagoa da Tolosako Musika Banda, XIX. mende amaieran sortu zen. Azkenik, Tolosan egon diren orfeoi ezberdinei buruz hitz egin dut. Uste dut, Tolosan beti egon izan direla orfeoiak, baina soilik azkeneko hiruak ekarri ditut orrietara: Orfeon Tolosano, Orfeon Gure Txokoa, eta hamaika urte bete berri dituen Tolosako Orfeoia”.

Gutxi gorabehera material hori bildu du Mikel Telleriak “Tolosa egin dugun tolosarrok” lanean. “Bildu” hitza azpimarratu zuen berak aurkezpena amaitzeko. “Hemen diodana ez da ezer berria, aurretik beste nonbait idatzia dago. Nik egin dudana informazio guzti hori bildu eta zuen eskura jartzea izan da”. Tolosari izaera eman dioten pertsonaia, gertaera, usadio eta instituzioen zertzeladak dira. ©



Galtzaundi 316  
10eko urtarrilak 22

## ALDATZ Kristaldegia

**Mota guztiako beirak**  
Bainu eta dekoraziorako  
ispiluak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-ixturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

## Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegururak  
Kotxe-asegururak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegururak  
Denda-asegururak  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

**Anetxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor  
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

**Juan Larrazpu**  
eraikuntzak, s.l.

- *Baserrietako igeltseritza eta egurrezko estrukturan adituak.*
- *Etxeen berrikuntzak: - Fatxadak - Teillatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...*

Tfnoa: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)

**Tolosa Bit**  
Informazioa Zertifikatua

Ordiagatik eta kopiatutak  
Egilea eta jarduera-eremua  
Mantentzena

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es



Txolarre Irratiak irudi eta lelo berria estreinatu du bere harmagarren urteurrenean

# Txolarre Irratia, bidezidor

14

Txolarrearen bi hanka arrasto egiten ari diren eta aurrerantzean ere egingo duten bidearen seinale. Horra hor Txolarre Irratiaren irudi berriak azaltzen diguna. Errepide handiak hartu gabe, bidezidorrak urratuz, bidezidorrak landuz, iritsi dira hamargarren urtemugara; "bitxur" hauek baitira herriak, auzoak, baserriak lotzen dituzten bideak, herritarretik herritarra iristeko biderik zuzenenak. Bidezidorretik jarraituko dute beraz, pausoz-pauso.

Erredakzioa

Urtarrilaren hamaseian aurkeztu zuen Txolarre Irratiak bere irudi eta lelo berria. Horretaz gain, hilaren 23an, Leidorren arratsaldeko 18:00etan izango den bertso jaialdiaren berri eman, eta bide batez, aurten, Txolarre Irratiak hamar urte beteko dituela jakinarazi zuen. "Txolarre Irratiak bere hamargarren urteurrena ospatu nahi du. Baina ospatze hutsagatik ospatzeak ez du zentzurik. Hamargarren urteurrenarekin Txolarre Irratiak egin duen bidea adierazi nahi dugu", azaldu zuen Jon Miranda, irratiko zuzendariak. Irratia egiten dutenentzat urtemuga hau ez da helmuga bat, bideak aurrera jarraitzen baitu. "Hamar urte beteko ditugu, hamaika bete ditzakegu edo hamabi... Zifrak ez du garrantziarik. Guk, egiten dugun bidean bertan jartzen dugu arreta, bidez gozatu nahi dugu, eta bide horretan, Txolarrek bere burua ezagutu, topatu, dezan nahi dugu".

Jon Mirandarekin batera, Amaia Agirre bertsolaria izan

zen aurkezpenean. Bera izan da Txolarre Irratiaren leloaren sortzailea. Hilaren 23ko bertso saioa ere berak gidatuko du. Irudi berria berriz Goitik Tolosako diseinu enpresak egin du.

## Zergatik irudi berria?

Bere sorreran ezarritako printzipioekin fidela da Txolarre Irratia. Irudi eta lelo aldaketa beraz ez datoz euskarazko tokiko irratiazen irizpideak iraultzera. "Irudia berritu badugu, irudi berri honek egiten ari garen bidea hobeto islatzen duelako da", azaldu zuen Miranda. "Orain arteko logoak txolarrea azaltzen zuen; baina txolarre hori geldirik zegoen, eta guk dabilen txolarrea irudikatu nahi izan dugu, Txolarre badoalako".

## Bi hanka arrasto

Txolarrearen bi hanka arrasto. Horixe da eskualdeko euskarazko irratiazen irudi berria hitz gutxitan azalduta. Baina ez da irudi huts bat; esanahiez beteta dago. Batetik, irratia

# Txolarre

## Irratia

### Bidezidorretik

107.5 fm | 101.2 fm

# rrak lantzen

egindako bidea irudikatzen du: "Txolarreak bi hankak batera mugitzen ditu. Salto txikiak eginez egiten du aurrera, pixkanaka, pixkanaka, baina sendo". Bestetik, euskarazko irratia bi zutoin nagusien arteko elkarrenergina irudikatzen du: "Hanka bat egunero egiten dugun irratia da, eta beste hanka eskualdearekin zein bertako eragileekin dugun harrremana da. Bi hankak beharrezkoak ditu Txolarrek aurrera egingo badu; baten faltan erren geratuko litzateke irratia". Eta hain zuzen ere, Txolarre Irratiak urte hauetan eman dituen pausoak ez dira errenak izan. "Aurrerantz emandako pauso txiki horiek ondo neurtutakoak dira, eztabaida eta hausnarketa luzeen ondorioak". Txolarre Irratiak beti izan du egiten ari den bidearen kontzientzia. "Horregatik, irudiak oinen goitiko bista bat eskaintzen digu, txolarrea bera baita bere oinei begiratzeko diena". Animalia hegalaria izan arren, Txolarrek beti izan ditu hankak lurrean.

#### Bidea bidezidor

"Txolarre Irratia gaur egun existitzen bada, horretarako bidezidorrak ireki ditugulako izan da", aipatu zuen Mirandak. "Guk urratu ditugu hamar urte hauetan eskualdeko euskarazko lehenengo irratia bidezidorrak, eta eman zaien erabilpenaren poderioz, hobetu eta zabaldu egin dira. Bidezidor hauek dira herri txikiak, auzoak, baserriak lotzen dituztenak, herritarretik herritarra iristeko biderik zuzenenak". Konotazio txarrik ere badu bidezidorrak: "Errepide zabalekin alderatuz, malkartsuagoak dira, sigi-sagatsuak. Bidezidorretan hotza egiten du, busti egiten gara. Baina horrelakoxea izan da Txolarra Irratiak gaur arte egin duen bidea". Bidezidorretik iritsi da honaino Txolarre eta bidezidorretik jarraitzea erabaki du, abantaila eta desabantailak bere eginez. "Txolarrek ez du autopistarik nahi, autopistek hiri handiak lotzen baitituzte eta komunikazio azkarren sos-

tengu baitira. Guk ordea bestelako komunikazioa bultzatu nahi dugu: gertuko komunikazioa, patsadatsua eta parte hartzailea". Bidezidorrak beste lanik ere eskatzen du: landu egin behar da sasiak har ez dezan. Horregatik eskualdeko euskarazko irratia erabiltzeko gonbita luzatu zuen beste behin Jon Miranda zuzendaria. "Gure ilusioa horixe da: herritarrek gure irratia erabiltzea, bere egitea".

Tolosaldeko irratia ez ezik, euskararen bidezidorrak ere aipatu zituzten aurkezpenean: "Tolosaldea eskualde euskalduna dugu, baina gurean ere euskarak ez ditu ate guztiak zabalik, eta euskararen bidea lantzen ez bada sasiak hartuko du".

Hamar urte hauetan urratutako bidezidorrak ospatzeko lehenengo ekitaldia izango da urtarrilaren 23koa. Baina urte osoan zehar ekitaldi gehiago antolatuko dituzte eskualdeko herri ezberdinetan. Adi egoteko deia luzatu dute. 

**ZALBIDE**  
Tolara Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**Zumardi**

SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

  
**kutxa**

**Martin**  
**Eceizabarrena**

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobiela: 608 774 822


Tolosaldeko hainbat eragile publiko eta pribaturen babesa du, eta estatuko aurrekontu orokorretan diruz laguntzeko konpromisoa hartu dute.

# Jose Luis Urdangarin

## “Eskualdeko lehiakortasun eta berrikuntzarako zentroa diseinatu dugu”

Leire Zubeldia

Krisiak eskualdeko enpresa eta familietan eragin dituen ondorioa latzak ikusteko behatoki paregabea da Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia. Lana bilatzeko hurbiltzen diren pertsonak bikoiztu egin dira eta enplegu saileko azpiegitura sendotu egin behar izan dute. Beste zereginik badute ordea: Lehiberri proiektuaren baitan, eskualdeko enprezentzat erreferentzialtasun ekonomikoa izango duen zentroa sortzen ari dira. Jose Luis Urdangarin, Tolosaldea Garatzen-eko gerenteak “Lehiakortasun eta berrikuntzarako zentroa” deitu dio. Non kokatuko den aztertzen ari dira orain, eta 2012rako martxan egon behar lukeela aurreratu du.





**Tolosaldea Garatzen agentziaren 15. urteurrena ospatu berri duzue. Zein aurrerapauso eman dira urte guzti horietan?**

Hamabost urtek lan asko egiteko denbora ematen dute, eta kontestua bera ere aldatu egiten da: Duela hamabost urte krisi bete-betean ginen; langabezia tasak %20a gainditzen zuen. Euskadi eta Gipuzkoa mailan, baliabideak elkartu, eta eskualde mailako erakundeak sortzea erabaki zen enplegu politika aktiboak sustatzeko. Nire ustez, bere fruituak eman zituen ekimen hark. Horren adierazle dira, hamabost urte hauetan hemendik pasa diren pertsona guztiak, sortu diren enpresa guztiak, eta lana aurkitzeko modua izan duten langile guztiak.

**Langabezia tasa handiko garai hauetan lan gehigarria egin behar izaten duzue?**

Gu Lanbide-ko zentro kolaboratzailea gara. 2009 hasieran bikoiztu egin zen jendearen etorrera. Ez dira soilik langabetuak etortzen; lanez aldatu nahi duten langileak ere hurbiltzen dira. Alde horretatik, enplegu saileko azpiegitura sendotu egin behar izan dugu. Guretzat erabateko lehen-tasuna da zerbitzu horrek.

**Enplegu politika aktiboak bultzatzen ahalegintzen zarete. Zein tresna dituzue horretarako?**

Tresna nagusienetako bat autoenpleguarena da. Autoenpleguaren bitartez, bere ideia eta enpresa martxan jarri nahi duen horri bultzada ematen diogu. Bere kasa lanean hasteak, erabaki garrantzitsuak hartzea dakar. Zalantza asko izaten dira, eta ez badu laguntzarik, agian, ez du pausoa emango. Zerbitzu honen helburua hori da: azaltzea zer suposatzen duen, zer ondorio edukiko lituzkeen; bere proiektua

bideragarria den aztertzea, eta bideragarria ez bada, bideragarria izan dadin zein pauso eman beharko lituzken adieraztea. Aurrera egitea erabakitzen badu, oso zaila da atzera bueltatzea. Bidea erakusten diogu: finantziazio iturriak bilatzen laguntzen diogu, instituzio publikoetako laguntza-programetan txertatu dadin birtartekari lanak egiten ditugu... Hau dena doakoa da. Urtero 200 pertsona inguru etortzen dira bere ideiarekin, eta asmoa gauzatzen dutenak 40 inguru izaten dira.

Horretaz gain, formazio-ko bitartekaritza eta orientazio eskaintzen dugu. Auzolan programaren bidez, lan merkatutik desplazatuta dauden kolektiboekin ere lan egiten da. Formazioa eman eta lan merkatura bideratzen ditugu. CIP programa ere guk bideratzen dugu. Hezkuntza prozesutik kanpo geratu diren pertsona gazteekin egiten da lan. Guzti hauek lan garrantzitsuak dira, ez soilik krisialdi garaian, egoera normalizatuan ere bai.

**Industria da eskualde honen motore ekonomiko nagusia. Zein irakurketa egiten duzue egungo eskualdeko industriaren egoeraz?**

2007aren amaieran eskualdeko lehiakortasun diagnostiko bat egin zen. Diagnostiko horretan ondorioztatu zen, eskualdea, balio erantsi altuko hornitzaileen polo bat bezala konfiguratu beharra dagoela. Hemen tradizio industrial handia egon da beti; batez ere papergintzan eta papergintzaren sektore auxiliarretan oinarritutakoa izan da. Industria eredu horrek, azken 30 urteetan eboluzio bat izan du: paper enpresak ixten joan dira, merkatu globalak eragin duen eraldaketak hala nahi izan duelako, eta erreakzionatzeko modurik topatu

ez delako. Baina paper enpresa horientzat lanean aritutako lan-tegi auxiliarrek eboluzio bat jasan dute. Eboluzio horren ondorioz, asko eta asko beste sektoreetara begira jarri dira. Aldaketa horri esker, eta tradizio industrialari esker, malgutasun bat egon da beste sektoreetan azkar kokatzeko eta ondo lan egiteko. Leku guztietan ez dute abantaila hori.

Nire irakurketa zera da: kez-kagarria da eskualdean ditugun enpresa guztiak txikiak izatea. Baina bestalde, potentzial handiagoko egitura sektoriala dugu gaur egun. Horren erakuslea da, duela 15 urte existitzen ez ziren enpresak direla gaur egun gehien hazten ari direnak. Bestetik, egia da eskualdean enpresa handirik ez dugula eta horrek mugatu egiten ditu mundu mailako merkatu bati begira ditugun aukerak. Baina horren aurrean ikuspegi zabalago bat izan beharko genukeela uste dut: onartu behar genuke, eskualde honetan ez egonagatik ere, kilometro jakin batzuetako erradioan ditugun enpresa traktoreak eskualdean balira bezala eragiten digutela. Adibide garbia da Beasaingo CAF. Abantaila da eskualdetik gertu horrelako traktzioa duten enpresak egotea eta hori aprobetxatu egin behar da.

**2009a urte beltza izan da eskualdeko hainbat enpresentzat. Adibiderik garbiena Gorostidi enpresan gertatua da.**

Gu enpresa horiekin harremanetan ari gara, eta jarraipena egiten diegu. Une honetan enpresek behar dutena dirua da. Gero, bideragarri bihurtzeko barneko aldaketa handiak egin beharko dituzte. Baina hasteko, hori posible izan dadin baliabide finantzarioak behar dituzte. Tolosaldea Garatzen-etik, ahal den neurrian saiatzen ari gara diru hori

bideratzen duten erakundeekin harremanetan jartzen. Baina guk ez daukagu emergentzia egoerarako salbamendu sistemarik, ez baikintuzten horretarako sortu. Guk egin dezakeguna, enpresak sensibilizatzea eta prestatzen laguntzea da, hurrengo krisia etortzen denerako lehiakorragoak izan daitezten. Gainera, gure zerbitzuak enpresa horietako langileei begira lantzen ditugu, horiek baitira kaltetu nagusiak. Justu dabilen enpresa horietan, lanean ari gara ahalik eta hobeto aterata daitezten, baina kontziente izanik, batzuen kasuan flotadorea dela behar dutena; igeri egiten erakusteko beranduegi da.

**Gorostidi, paper fabrika gehienak... egoera kaxkarrean daude. Papergintza agortuta al dago?**

Ez dago agortuta, inondik inora ere. Papergintzak aberastasuna sortzen jarraitzen du eskualdean. 400 pertsona inguru daude paper fabriketan lanean eta beste askoz gehiago haien hornitzaile moduan. Nire iritziz, papergintzak pisu handia jokatu du eta egun oraindik jokutzen du eskualdean. Sektore bezala guretzat estrategikoa da. Lagundu egin behar zaio, baina sortu diren alternatiba berriei bizkarra eman gabe. Papergintzan aldaketa ikaragarriak egon dira mundu mailan. Portugalen fabrika bat irekitzen denean munduko merkatu guztia aldatzen da. Noski, gureak txikiak dira, eta ez da erraza aldaketa horien aurrean erreakzionatzea ez badira merkatu-txoko jakinetan kokatzen.

**Tolosaldeko gazte asko Goierriara joaten dira lanera. Hori eskualdean dugun industriaren adierazgarrietako bat ere bada...**

CAF eta horrelakoak eskualdetik gertu edukitzea suertea da; ez hemengo jendea lanera hara

joan daitekeelako, eskualdeko enpresei lana ematen dielako baizik. Badakit jende gaztea eskualdetik kanpora ateratzen dela. Baina hemen ere ikusmira zabaldu egin behar da, eta bi datu alderatu behar dira: bat, eskualdean zenbateko populazio aktiboa dugun; eta bi, eskualdean zenbat lanpostu dauden. Hori da datu adierazgarriena. Eta nik esaten dizut, eskualdeari dagokionean ez dagoela diferentzia handirik. Izan ere beste eskualdetako jende asko ari baita hemen lanean. Hemendik atera daitekeen ondorioa da, ea ondo egokitzen dugun hementxo hezkuntzaren perfla hementxo behar diren lanpostuetara.

Hain zuzen ere, Lehiberri proiektuaren ardatzetako bat hori da...

Horregatik daude Lehiberri Tolosako Lanbide Heziketako bi zentroak. Gure enpresek dituzten langile profilak beharrik asetzeko, elkarlana behar da enpresen eta formazio-zentroyen artean.

Lehiberri baditu ardatz gehiago ere. Proiektu handia da. Zer nolako martxa darama egitasmoak?

Burubelarri ari gara

horrekin lanean. 2008an talde sustatzaile bat sortu zen. Hemen, eskualdeko zortzi enpresetako zuzendaritzak daude, Gipuzkoa Berritzen, hiru udaletxe, Tolosaldea Garatzen eta lehen aipatutako Tolosako Lan Heziketako bi zentruak ere bai. Talde honek jada hainbat ekimen jarri ditu martxan: urrian IKT astea antolatu zen, eta eskualdeko bost industriagunetara eraman zen formazio itinerantea; Tolosako KZ gunean ere halako programazio bat egin zen aste horretan. Formazio dosi txikiak izan ziren, baina jendearengan eragina izan zuten formazioaren arra pizteko. Mapa birtual bat ere egin dugu, eskualdeko enpresa guztiakin. Dagoeneko gure webgunean kontsultatu daiteke. Gure ustez, eragileen arteko ezagutza sustatzea ezinbestekoa da. Eta ildo honetatik, lanean hasi gara obserbatorio sozioekonomiko bat sortzeko. Denok diagnostiko amankomun bat egitea ezinbestekoa iruditzen baitzaigu. Horretaz gain, prospekzio lan garrantzitsuak egiten ari gara gure enpresen zerbitzu eta produktu beharrek datu basea sortu eta lankidetzak aukerak identifikatzeko.

Bestalde, eskualdean dagoen hutsune handi bati erantzuna emango dion zentro bat diseinatu dugu: Eskualdeko lehiakortasun eta berrikuntzarako zentroa da. Une honetan,

zentro horrek non joan beharko lukeen aztertzen ari gara. Babes bila gabiltza, proiektu potoloa baita eta erakunde laguntza ezinbestekoa izango baitugu egitasmo hau gauzatzeko. Erakunde batzuk euren konpromisoa erakutsi dute jada.

Zein izango da zentru honen helburua?

Eskualdean existitzen ez den erreferentzialtasun ekonomiko bat lortzea. Gaur egun, enpresek ez dute eskualde izaerarik. Zerbait nahi duenak Donostiara edo Bilbora joan behar izaten du.

Zentru honek hainbat eduki izango ditu: bat, enpresa haztegia da. Enpresa berritzaileak sortzen badira Miramongo edo Arrasateko zentruetara joan behar izaten dute. Toki hauetan sortu eta garatzen badira, ez dira eskualdera etorriko, han gertuko dira. Eskualdean enpresa haztegi potente bat behar dugu, eta zentru horren baitan sortuko dugu. Bestetik, eskualdeko enpresak txikiak izanik, lehiakorrik izateko modu bat elkarlana bultzatzea da. Zentro honen helburu nagusia hori izango da. Horretarako laborategi batzuk izango ditu. Enpresek proiektu batzuk aurkeztuta erabili ahal izango dituzte. Formaziorako azpiegitura ere izango du zentruak. Gaur egun Lanbide Heziketako institutuek eskaintzen duten formazioaren osagarria izango da. Edozein mintegi, jardunaldi eta abar antolatzeko azpiegiturarik ere ez dago. Hutsune horri ere erantzungo dio.

Zentru honek, nolabaiteko gorputza emango dio Lehiberri bideratzen diren egitasmoei. Nire ustez, orain arte Tolosaldean maila sozioekonomikoan egin den proiekturik potoloenetakoa da.

Eskualdeko udalerriek nola ikusten dute zentru hau?

Tolosaldea Garatzen foroaren kide bat gehiago besterik ez da, baina proiektuaren gidaritza teknikoan erabaten dugu. Abenduan batzar nagusia egin genuen. Egun osoko jardunaldi bat izan zen. Denekin aritu ginen honetaz hitz egiten. Nire ustez, kolore guztietako udalak izanda ere, denak dira kontziente zein egoera daukagun; denek dakite Lehiberri ez gaituela krisitik aterako, baina denek egiten dute bat, hurrengo krisialdiari begira neurriak hartzen joateko formula egokia dela esatean.

Noiz jarriko da martxan zentru hau?

Zentroak 2012 urterako martxan egon behar du. Ez dakit hurrengo krisia noiz etorriko den, baina gure enpresak krisi horri aurre egiteko prest egotea nahi badugu, lehenagotik neurriak hartzen hasi beharko dute. Kontutan hartu baita ere, lehenago, enpresa horiekin sentsibilizazio lan bat egin beharra dagoela. Beraz, jada berandu gabiltza.

Esan duzu zentroa non joango den pentsatzen ari zaretela. Ezin duzue aurreratu non?

Erabakitzeke dago. Azterketa bat egin dugu eta hiru leku proposatzen dira. Horietako batak boletoko asko ditu zentroaren kokagunea izateko. Non joango den erabakitzean, aurreproiektu bat egin beharko dugu, eta hori urteko lehenengo sehilabetekoan izango da. Izan ere, estatuko aurrekontu orokorretatik diru partida bat eman zaio zentru honi, eta diru partida hori aurtentzen inbertitu behar da. Presioa daukagu beraz, eta hori ona da lanerako.



## Irakurlearen begietatik



Jone Gorostarzu

Irakurlea

Bidaiatzea helmuga batera gerturatzeko joatea da. Pausoak metro eta metroak kilometro bilakatuz jomugara iristea. Edo horretan saiatzea. Baina bidaiatzea abiapuntutik urruntzea ere bada. Zerbait atzean uztea, ahaztea, ihes egitea. Utz ditzakegu atzean etxeak, kaleak, mendiak eta herriak. Baita lagunak eta ez hain lagunak ere; tamalez, baina, gonbidatu gabeko bidelagun izan ohi dira kezkek, penak, ezinak eta beldurrak. Maletan txoko txikiren bat aurkitzen dute beti, eta kilometroak ez dira aski hauek ikusezin bihurtzeko. Ez da izango trenik ez hegazkinik bihotzeko minetatik urrunduko gaituenik.

# Eta emakumeari sugeak esan zion

19

Horrelaxe gertatzen zaio Teresa, liburu honetako protagonistari ere. Euskal Herria utzi eta W. deituriko Europako herri batera abiatzen da Andres, bere senar zintzo eta langilearekin. Han Luis, gazteagotan bere ikaskide izan zen, pare bat aldiz oheratu, maite izan eta ahantzi ezin duen gizonaren etxean jarriko dira bizitzen. Baina nobelaren hasieratik abisu ematen zaigunez, bizileku aldaketa honek ez du balioko Teresaren arazoak konpontzeko; aldiz, okertu baino ez dira egingo, depresioaren atarian murgilduko da eta amaieran gizonezko oro alde batera utzi eta bere bidaian, bere ibili eta ihes horretan jarraituko du emakumeak, baina oraingoan bakarrik.

Bakarrik, alboan pertso-

na fisikorik izango ez duen neurrian; izan ere bakarrik, aspalditik sentitzen da Teresa, hori baita liburuak jorrratzen duen gai nagusia. Urrun sentitzen ditu etxe berean bizi zaizkion bizionak, eta protagonista nekatuta dago beti, geroz eta ixilago, ezertarako gogorik, indarririk gabe, goibel. Gaixo sentitzen da, ez du hilekorik ere, eta medikuen hitzetan atsedena du erremedio bakarra; lasaitasuna, lo egitea. "Bakardadea eta maitasunik gabe bizitzea eta horrekin ezer egiten ez jakitea. Hori izango da ziurrenik gaixorarik latzena. Izenik ez duena, baina hil zaitzakeena"

Apurka apurka Andres galduko du, ia konturatu barrik arrotz egingo zaio hamar urte ezkondata daramatzen senarra. Hau kanpoan den

batean Luisekin amodioa egingo du, baina honek ez du ezer aldatzen, eta bakardadearen mamuak, bere bizitzan pasatako gizonezko guztien presentziak uxatzea lortu ez duten mamuak, ez dio bizitzen utziko. Horrela, ametsetan burura etorriko zaio irudi bat, behin, gazteagoa zenean, Andonirekin oheratu zen Genoako hotel bateko irudia; pixkanaka irudia asmo bilakatuko da, eta asmoa erabaki. Erabaki hau indartzen joango da bere barnean, eta alboan inor ez duela lurralde beroago horretara abiatuko da Teresa, neketik ihesi, somniferoek indartutako lozorroan autobuseko kristaletik begira.

Liburu irakurterraza da, gogoeta eder eta aberatsez josia; gizon emakumeen arteko harremanen, emaku-

mearen irudiaren, maitasunaren, sexuaren zein beste gai ugariaren inguruko ideia eta galdera ugari aurkituko ditugu bertan. Hizkera erraz eta gertukoa, tonu goxoa baina ezkorra eta grisa. Kanpora ez baina barnera begira egindako kontaketa da, eta barne bidaia baten berri ematen digu Oñederren lehenez elaberri paregabe honek.

TOPICen egingo dira programazioko emanaldi asko

# Euskal ekoizpenak nagusi neguko kultur egitarauan

Krisiak krisi, programazio anitza eta kalitatezkoa osatu dute Tolosako kultura saileko arduradunek. Martxora arteko kultur egitarauan euskal kultur produkzioak dira nagusi: hilaren 9an Leidor muku betezuen "Ttakun Ttan Ttakun" txalaparta eta dantza ikuskizunarekin batera, Txolarre Irratiaren bertso jaialdia, Gorringo taldearen "Xabinaitor" antzezlan, May Gorostiaga aktore tolosarraren emanaldi berria edo eta Aukeran dantza taldearen "Gernika" ikuskizuna dira neguko programaren plater garrantzitsuena osatzen duten osagaietako batzuk.

Leire Zubeldia

2010. urtea krisi urte bezala definitu zuen Andoni Iturzaeta Tolosako kultura zinegotziak. Aurrekontu murrizketa ordea ez da oztopo izan neguko kultur programazioa osatzeko garaian. "Programazio erakargarri eta orekatua osatzen asmatu




dugula uste dugu kultura sailean", adierazi zuen zinegotziak. Orekatsua esatean, adin guztietako pertsonentzat zuzendutako emanaldiak izango dituztela esan nahi izan zuen. Emanaldi hauek aukeratzeko garaian, "kalitatea da irizpide nagusia". Arte eszeniko ezberdinak ekartzen ere saiatzen dira, eskaintza gustu guztietako jendearentzat egokitu dadin. Era honetan, dantza ikuskizunak, antzerkia, bertsoak, kantugintza, literaturaz eta abarrez gozatzeko aukera izango dugu martxora bitartean.

**Euskal ekoizpenak eta eragileekin elkarlana**

Hiruhileko honetan antolatutako emanaldi guztien artean

gehienak euskal kultur ekoizpenak dira. Etxeko produktuak ere kalitatezkoak direla frogatzeko aukera izango da beraz, Gorringo taldearen "Xabinaitor" antzezlan, "Erreka Mari" Txotxongilo emanaldia, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen "Internet Kafe" ikuskizuna, Yolanda Arrietaren "Off-On" errezitaldia edo eta May Gorostiagaren "May Presente" emanaldiaren bidez.

Euskal ekoizpenen kontratazioaz gain, kultura sailak herriko eta eskualdeko kultur eragileekin egindako elkarlana ere azpimarratu nahi izan du. Txolarre Irratiarekin elkarlanean bertso jaialdia antolatu dute urtarrilaren 23rako. Fronton Kafetegiak berriz eszenatoki



gisa egin du negu honetako egitarauerako ekarpena Amaia Zubiriaren kontzertuarekin. Martxoaren 7tik 14ra bitartean ospatuko den Ahoz-ahoko jaialdia berriz Asvinenearekin elkarlanean antolatuko da eta ezin aipatu gabe utzi, Veleta-Aizorraz elkarlearen urteetako kolaborazioa Iñauterietako haur jaialdia antolatzeko. Neguko programazioa, eskualdean dagoen kultur ekimenaren isla ere izango da beraz.

#### TOPIC, eszenatoki berria

Abenduan estreinatu zen TOPIC "Aitarekin bidaian" antzezlanarekin. Baina hau izango da Tolosako areto berriaren estreineko urtea. "Tolosak tamaina ertaineko aretoa falta zuen. Ez dugu ahaztu behar Leidorrek 800 pertsonentzako lekua duela, eta formato txikiko emanaldiak eskaintzeko handiegi geratzen da", azaldu zuen Iturzaetak. Bere ustez, TOPICek "goxotasuna" eskainiko du zebait emanaldi ikus-entzuteko garaian. Areto honen eragin-

kortasunaren erakusgarri, programazio honetako ikus-kizunen erdiak bertan eskainiko dira.

#### Bono sistema, zinetik kultur emanaldietara

Badira bi urte Tolosako Kultura Sailak zine bonoen aldeko apustua egin zuela. Politika honi esker, herritar asko dira Leidorreko filma bat ikustera gerturazten direnak. "Beste herrietako aretoak hustutzen ari diren garai hauetan, guk, bono salmenten bidez ikusleak areagotzea lortu dugu". Emaitza bikaina izan dela ikusirik, bono sistema gaitzetzeko kultur emanaldietara hedatzea erabaki dute.

Neguko programazioan egin duten eskaintza honakoa da: "Hiru saio ordaindu eta lau ikusi". "El club de las mujeres invisibles", "Xabinaitor", Gabino Diegoren "Una noche con Gabino" eta Aukeran dantza taldearen "Gernika" ikuskizunak sartzen dira bonoan. Hau eskuratzen duenak, esan bezala %20ko deskontua izango du, alegia, lau emanaldi hauetatik bat doan aterako zaio. Bonoaren prezioa 40 eurokoa izango da, eta lau emanaldi hauetarako sarrerak 50 euroko kostua izango luke bonorik gabe. Bono hauek Servikutxan, Leidorren zine emanaldietako ordutegian, zein TOPICeko leihatilan eskuratu ahal izango dira. ©

## Kultur egitaraua

(urtarrila-martxoa)

### Urtarrila

- 3- Los Chicos del coro kontzertua. Leidor. 19:00
- 4- Musika tresnen fabrika haur ikuskizuna. TOPIC. 17:00
- 9- Juan Mari Beltran + Kukai + Ttanttaka. Leidor 20:30.
- 9-10- Los duendes txotxongilo taldearen "La caperucita no, gracias" emanaldia. TOPIC. 17:00etan (9) eta 12:00etan (10)
- 15- El club de las mujeres invisibles antzezlan. Leidor. 20:30
- 23- Txolarre Irradiaren 10. Urteurreneko Bertso Jaialdia. Leidor. 18:00.

### Otsaila

- 5- Xabinaitor, Goringo taldearen antzezlan. Leidor. 20:30.
- 6- Iñauterietako haur jaialdia. Leidor. 16:30.
- 11tik 16ra- Iñauterik
- 20- Tatxin eta Tatxan-en Abenturak haur ikuskizuna. TOPIC. 17:00.
- 26- Yolanda Arrieta-ren Off-On aurkezpen musikatu. TOPIC. 20:30.

### Martxoa

- 5- Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen Internet kafe. TOPIC. 20:30.
- 6- Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en Irrien laguna ikuskizuna. LEIDOR. 17:00.
- 12- Gabino Diego-ren Una noche con Gabino monologoa. Leidor. 20:30.
- 13-14- Txotxongilo taldearen Erreka Mari emanaldia. TOPIC.
- 18- May Gorostiagaren May Gorostiaga... Presente! Monologoa. TOPIC. 20:30.
- 26- Aukeran dantza taldearen Gernika ikuskizuna. Leidor. 20:30.

# Ugaitz Renobales

## “Ez dakit zaleen jarrera inoiz behar bezala eskertzea lortuko dudan”

Errege egunaren biharamunean bildu ginen Ugaitz Renobalesekin. Altzan txapela irabazia zuen bezperan. Azkenaldian zenbat irabazi dituen galdetu genion, eta kontuak ateratzen hasi ginen berarekin, txapelketa bakoitzean geldialdia eginez. Errepassoaren ostean, hauxe emaitza: jokaturako bederatzi finalatik zazpi txapel etxera.

Amaia Goikoetxea

Txapela burura eramanez hasi duzu 2010a...

Altzako txapelketan parte hartzen nuen lehen aldia zen. Gorrotxategi hernaniarra izan dut bikote. Baez eta Uzkudunen

aurka jokatu genuen finalerdietako neurketa, eta egia esan, nahiko erraz irabazi genuen (22-8). Gehiago kosta zitzaigun finala irabaztea; Armendariz eta Lopez izan genituen arerio, eta markagailuak aurkakoa erakus badezake ere (22-12) partida gogorra izan zen. Gorrotxategi oso ondo aritu zen egun hartan.

Egiako txapelketako finalean Gorrotxategi bera aurkari izan zenuen.

Ordukoan Lopez ortuellarrearekin aritu nintzen. Armendarizen eta Gorrotxategiren aurka jokatu genuen finala, eta neurketa zaila izango zela uste genuen, Armendarizek eta Gorrotxategik oso bikote sendoa osatzen baitute. Lopez eta biok segurtasunez aritu ginen, ordea, eta irabaztea lortu genuen (22-13). Kasu honetan finalurrekoa izan zen partida gogorra. Onsalo eta Linzoainen aurka jokatu behar izan genuen. Galtzen hasi ginen, baina neurketari buelta eman eta 22-15 irabazi genuen.

Lezoko txapelketan Lemuno eta Linzoainen aurka jokaturiko partida hura ere maldan gora jarri zitzaizuen, nola gainera...

Jon Ben-

goetxea eibartarra izan nuen bikote txapelketa hartan. Finalera iristeko bi neurketa jokatu genituen; lehena Lemuno eta Linzoainen aurkako hura. Oraindik ez dakit nola irabazi genuen. 13-1 galtzen hasi ginen; pixkanaka pilota sartzen hasi ginen, ordea, eta azkenean irabaztea lortu genuen (22-19), baina majo sufrututa. Mendizabal eta Jauregiren aurka jokatu genuen finalurrekoa, normalean punta-puntan ibiltzen den bikotea. Bagenekien zaila izango zela, partida ona egitera joan ginen eta azkenean nahiko erraz irabazi genuen (22-8). Eta finalean ordu eta hogeita minutu aritu ginen pilotan, oso neurketa luzea eta gogorra izan zen. Idoate eta Landiribarren aurka jokatu genuen. Idoate profesionaletara jauzi egitekotan dabil, eta, agian horregatik, gogoz jokatu genuen. Lau pilotariok maila ona eman genuela esango nuke, eta azkenean irabaztea lortu genuen (22-20).

Zumarragakoa izan zen ihes egin zizun bi txapeletako bat, ezta?

Bai, uztailean izan zen, Eliteko finalean. Debutatu berri duen Larrinagarekin jokatu nuen, Jon Beitia eta Ajuriaren aurka, eta 22-17 galdu genuen. Gogoan dut esperantza handiz joan ginela partida irabaztera, baina aurkariak izugarri jokatu zuten egun hartan. Neurketa gogorra izan zen, eta edonork irabaz zezakeen.

22

Ugaitz Renobales Gorrotxategirekin Altzan txapela irabazi ondoren.





Bizkaitik ere ekarri zenuen txapela etxera.

Matienako txapelketatik. Loiola elgoibartarra izan nuen bikote orduko hartan. Baez eta Landiribarren aurka jokatu genuen finala, eta nahiko erraz irabazi genuen (22-10); uste dut Landiribarrek ez zituela eskuak oso ondo.

Baez, Lopez, Landiribar, Armen-dariz... Behin baino gehiagotan agertu zaizkigu izen horiek. Partida asko jokatzeko dituzue elkarren aurka, eta bakoitzaren jokoaren xehetasun guztiak ezagutuko dituzue honezkero. Onetik ala txarretik du horrek gehiago?

Asko ezagutzen dugu elkar. Sarritan tokatzen zaigu elkarren aurka jokatzeko, txapelketetan aurrera zoazen heinean betikoak agertzen dira azkenean. Zuk badakizu aurkariak nola jokatzeko duen baina aurkariak ere oso ondo ezagutzen zaitu zu.

Txapelketa batean zure atzelari izan dena hurrengoan aurkako bikoteko atzelari izango da, eta hark badaki zuk nola jokatzeko duzun. Onetik zein txarretik du horrek baina, agian, alde txarrak gehiago direla esango nuke.

**Klubaren artekoan ere, txapeldun.**

Berriak txapelketa oso polita izaten da, klubaren artean jokatzeko baita. Klub bakoitzetik kadeteek, jubenilek eta afizionatuek jokatzeko dute, eta nahiz eta zuk zeurea irabazi, beste bi kategoriek galtzen badute, kanpora zoaz. Irurtzungo klubaren aurka jokatu genuen finala, Hernanin, eta gure mailan irabazi egin genuen. Taldeko kadeteek ere irabazi egin zuten, jubenilek berriz galdu; beraz, 2-1, txapela guretzat.

**Bigarren txapelak Donezteben egin zizun ihes, oso erraz gainera...**

Galarraga izan nuen bikote

txapelketa hartan. Esnal eta Gorrotxategiren aurka jokatu genuen finala, eta 22-5 galdu genuen. Sekulako astindua hartu genuen, ni gaizki aritu nintzen eta Koldok ere ez zuen bere eguna izan; ordu laurdean partida amaituta zegoen.

**Zer pentsatzen du pilotariak 20-5 galtzen doanean?**

Hasteko, sekulako amorrua sentitzen da. Zerbait egin nahi duzu baina ezin duzu, sartzen hasten zara baina dena gaizki ateratzen zaizu... Jende asko zegoen final hura ikusten, gogoan dut zein gaizki pasa nuen... 20-5eko markagailuak korrika aldageletara joateko gogo ematen du, baina ahal dena egiten saiatzen zara... Han ikusi zen ezin zela ezer egin.

**Gipuzkoako Txapelketa eta Elitekoa izan ziren urteko lehenengo bi garaipenak.**

Final gogorra izan zen Gipuz-

koako Txapelketakoa. Bergaran jokatu nuen Galarragarekin, Elurbe eta Arzelusen aurka. Gaizki hasi ginen, 10-2 galtzen joan ginen eta aurkariak oso joko ona egiten ari ziren. Azkenean 22-18 irabaztea lortu genuen. Eliteko txapelketan, berriz, Lopez izan nuen bikote, eta 22-11 irabazi genuen Onsalo eta Jauregiren aurkako finala.

**Kontuak atera ondoren, bederatziko finala jokatu eta zazpi irabazi.**

Sinatuko nuke urte berrirako ere.

**Eta txoko guztietara jarraitzen dizun afizioari buruz galdetuko bagenizu?**

Ez dakit zaleen jarrera inoiz behar bezala eskertzea lortuko dudan. Partida guztietara joaten dira, joan eta animatu gainera. Ez da harrokeria, ezta gutxiago ere, baina iruditzen zait afizionatuetan nik bakarrik dudala horrelako afizioa. Finaletara beste pilotarien senide eta lagunak ere joaten dira, baina nireak txapelketako lehenengo partidatik hasita etortzen dira. Oso gustura nago horrekin, ez dakizu zer nolako poza ematen duen partida jokatzera joan eta lagunak, haien lagunak... zu animatzen ikusteak. Beste gogo bat ematen du jokatzeko. Eta ez dakit hori nola eskertu. Beste pilotariak ere esaten didate, "A ze afizioa daukaan! Zenbat jende ekartzen duan!"

## irakurri entzun Ikusi



Zureak egin du  
Iñaki Frieria

Genero beltzeko eleberria da, emakumeen aurkako tratu txarrak ardatz dituen. Protagonista kazetaria da. Aldizkariko zuzendariak tratu txarrei buruzko artikulu bat idazteko agintzen dio. Lanean hasten denean, tratu txarrak jasaten dituen emakume bat ezagutuko du, eta gauza arraroak pasako zaizkio. Irakurterraza da, tita batean irakutzen den horietakoa.

Bizardunak  
Bizardunak

Bizardunek ez dute inolako erreparririk azaltzeko zein musika mota egiten duten: "FOLK RADICAL VASCO, NAFAR HERRI (HIRI) KANTA BERRIAK. Helburu hau lortzeko, 5 irlandar abesti tradizional eta guk egindako 4 kanta erabili ditugu. 9 gizon, 9 ahots... denetarik dago lagun-talde honetan; folk-ean aritutakoak, rokerok ezagunak, azken hauen lagun mozkorrak... Aintzinako mistika historiografikoan murgildu gara, daukagun langile ikuspuntutik gaurko garaia kantatuz, etorkizunaren zai...kontzertuak baino, ospakizun baten gisa aurkeztu nahi ditugu gure abestiak"

Celda 211


Daniel Monzón  
Kartzela bateko presoak matxinada bat egiten dute espetxeko baldintzak hobetzeko eskatuz. Matxinada hori gertatzen den unean, protagonistari espetxea erakusten ari zaie, bertan funtzionario gisa lanean hastekoa baita. Presoaren papera jokatzeko du bertatik bizirik atera dadin. Kontatzen den istorioa ez da sinesgarria egiten.

# Urtarrilaren 22tik otsailaren 5era arteko hitzorduak

## Erakusketak

Tolosako Kultur Etxea

- Urtarrilaren 24ra arte: Bikarte elkartearen erakusketak.



## Bertsolaritza

Leidor

- Urtarrilak 23: Txolarre Irratiak antolatutako bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Jesus Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzaila: Amaia Agirre. 18:00etan.

## Antzerkia

Leidor

- Otsailak 5: Gorringo antzerki taldearen Xabainator lana. 20:30.

## Musika

Bonberenea

- Urtarrilak 22: Ange Duhalderen emanaldia 22:30ean.



- Urtarrilak 23: Picore eta Vision Tunel zuzenean 22:30ean.

## Uzturpe Ikastolaren X. Kultur Astea

- Urtarrilak 25: 2 urteko gelan ate irekien jardunaldia. 17:00etan euskaraz. 18:00etan gaztelerez. Emeterio Arreseko 13. znbk.

- Urtarrilak 26: "La importancia



de la vision en el aprendizaje" hitzaldia Teresa Olabarria optometristaren eskutik. Kultur Etxean, 18:00etan.

- Urtarrilak 27: Pirritx Porrotx eta Mari Motots-en "Irrien lagunak" ikuskizuna. Belabieta

kiroldegian. 18:00etan. Sarre-rak 5 euro.

- Urtarrilak 28: "Zer gertatzen da 2 urterekin?" hitzaldia adin horretako gurasoentzat. Kultur Etxean, 18:00etan.

- Urtarrilak 29: "Urtu baino lehen" proiektzioa DBHko ikasleentzat. Kultur etxean 11:00etan.

- Urtarrilak 30: Graffitik festa ikastolan. Ondoren bazkaria. 17:00etan txokolatada.

- Urtarrilak 31: Mendi irteera Ibiurko urtegerira.

## Lizartzako ihauteriak 2010

- Urtarrilak 30: 12:00; Ihauteiei hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan ditugula. Ondoren: Antzerkia eta Otsolar taldearen eskutik dantza saioa.

- Otsailak 5: 14:15; Eskolak antolatuta mozorro festa. Ondoren: kalejira.  
- Otsailak 6: 7:00; Plazan elkartu eta kalejira dantzari, txantxo eta txistulariekin, "Jeiki zaitezte Lizartzatarrok" abestuz hasiko dugu ihauteria. 7:30; Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik. 9:30; Etxe-zahar baserrian geldialdia gosalteko. 12:00; Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik. 13:30; Ihautei partaide guztiak kalejira, arrateko zubitik irtenda. Ondoren denok elkarrekin bazkaria egingo



## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazioz atutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Administrazio elektronikoa	2010/01/21	12
Biodantza	2010/01/24	4
Nominak eta Gizarte Segurantzaren euskarri informatikoa	2010/01/25	30
Landa eremuan mendekotasun egoeran dauden pertsona nagusien zaintzaileei bideratutako ikastaroa	2010/01/25	50
Etzeko kudeaketa eta mantenua	2010/02/01	9
Excel aurreratua	2010/02/03	20
Word hastapena	2010/02/22	20
CNC fresagailuaren programazioa (Fagor)	2010/02/23	46
Aire egokituko hodi muntaia	2010/02/23	20
CAD-CAM. Abiadura handiko mekanizatua NX	2010/02/23	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia      Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA      Posta-e: info@ikastn.com  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa      Webgunea: www.ikastn.com

dugu herriko frontoian. 18:00; Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jeisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta "Lizartzako talogileak" egindako taloak jateko aukera izango da. Taloen ondoren Bertso poteoa tabernetatik kalejiran.

- Otsailak 7: 11:00; Agintari eta dantzariak Meza Nagusira, txistulariak eskeinitako "Agintari doinuaz" lagundurik. Ondoren. Hamaiketako plazan 12:00; Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen, gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. 13:00; Lizartzako Ihaute Dantzak plazan. 14:00; Ihautei bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren:Txaranga, karaokea, jokuak, zozketa, sariak,... 20:30; Plazan "ijitoa" errez ihauteien amaiera.



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 22</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Asteazkena, 27</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Astelehena, 1</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Larunbata, 23</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Osteguna, 28</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Asteartea, 2</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Igandea, 24</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Ostirala, 29</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Asteazkena, 3</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
<b>Astelehena, 25</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Larunbata, 30</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	<b>Osteguna, 4</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa
<b>Asteartea, 26</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Igandea, 31</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Ostirala, 5</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	(asteazk.)	geriatrikoa
Baliarrain	943 683 361	943 672 932
Medikua	943 681 134	Udaltzaingoa
943 683 361	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 681 134	943 650 016
Medikua	943 683 361	639 352 156
Bidegoian	943 681 134	943 670 325
Medikua	943 681 134	112
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	943 672 536
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 672 411	943 651 425
Medikua	943 653 329	943 673 022
Irura	943 653 329	943 675 320
Osasun zentroa	943 690 720	Medikua
Tolosa	943 650 595	943 682 077
Anbulatorioa, Iarriald.	943 650 931	Orendain
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua
		943 655 595
		943 682 228



# SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA



## Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jel.es

## Beatriz

Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886 - 943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615 - 943 671 149

# Muxutruk

## Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527
- Ingelesko klaseak ematen dira, barka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituladuna. 664.160.268

## Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536
- 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616.278.845
- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631

## Salgai

- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

# Horoskopoa

Urtarrilaren 22tik otsailaren 5era bitarteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Egun batzuk onak izaten diren bezala, beste batzuk txarrak izaten dira. Normala da zenbaitetan ezkor eta goibel egotea, baina horregatik ez zaitze hondoratu. Pasako da.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Urtarrila amaierako asteak zure asteak izango dira. Dena ondo joango zaizu, bereziki maitasunaren era ekonomia-aren arloetan. Hori bai: eskiatzera bazoaz kontuz ibili. Dena ez da ona izango!



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Eskerrak urte berriarekin batera gauza asko egin behar zenituen! Esateak eta pentsatzeak ez dizu ezertarako balio. Jarrera kontua da dena. Utzi alde betera nagikeriak eta har ezazau jarrera ekintzailea.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Ligatzeko estrategiek huts egiten dizute. Zerbait gaizki egiten duzun seinale. Agian bila ibiltzen da akatsa. Etorri behar badu etorriko da, bitartean disfrutatuz lagun arteaz.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Ez dira inbertsioak egiteko garai onak, baina dirua ez da metatzen bankuan geldirik edukita. Aztertu zein aukera dituzun, eta aukeratu alternatibarik ziurrena, eta ez errentagarriena, horiek ez baitira lur seguruak.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Jendea urduri dabil, eta urduritasunak hainbat liskar eragingo ditu. Saia zaitze hotzean jokatzeko. Bestalde, albiste on bat ekarriko dizu otsailak. Familia barrutik etorriko da berria.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Lezio bat ikasiko duzu: Gauzak ondo egin nahi badituzu, ez duzu besteen esku utzi behar, zuk egin behar duzu lan horretarako. Gero kekatzeak ez du balio. Estutu poltsikoa merkealdietan, bestela...



## scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Denek dituzte arazoak, baina beti zu izaten zara kezaka ibiltzen dena. Hartu hori kontutan jendea nazkatu nahi ez baduzu. Bikotea baduzu armonia onean pasako dituzte aste hauek.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Laneko arazoak lanean uzten ikasi behar duzu. Erreparasatu bankuko mugimenduak. Akatsen bat egin dute, eta ez zaude dirua galtzeko moduan. Dentistari bisita egin beharrean aurkituko zara.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Gaizki sentituko zara lagun bati izkin egiteagatik. Mina egina dago ordea eta zure burua zigortzeak ez du ezer konponduko. Venus-en izarra argituko zaitu egun hauetan, eta benetan ederra egongo zara.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Inspiratuta egongo zara, eta gauza ederrak aterako zaizkizu. Urte hasiera egokia izaten da promozioa egiteko. Negoziok argia ikusiko du, ezin da jakin ordea argiune horrek zenbat iraungo duen.



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Ez dira aste onak izaten ari. Lanak ez dizu denbora liberik uzten eta neketa zaude. Lasai, handik edo hemendik etorriko da saria. Huts egin dizun horrek bigarren aukera bat eskatuko dizu.





# TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



telefonoa  
943651063  
webgunea  
[www.samaniego-tolosa.com](http://www.samaniego-tolosa.com)  
e-posta  
[012244aa@hezkuntza.net](mailto:012244aa@hezkuntza.net)

:: Haur Hezkuntza  
(2 urtetik hasita)  
:: Lehen Hezkuntza



Haur Txokoa

07:30etik  
aurrera



ORIXETOLOSA

:: Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza  
:: Batxilergoak

telefonoa  
943651387  
webgunea  
[www.orixe.net](http://www.orixe.net)  
e-posta  
[012980aa@hezkuntza.net](mailto:012980aa@hezkuntza.net)

*Euskaratik eta Euskaraz*



**Matrikula epea: otsailaren 1etik 12ra**